

«Bizitzan hiru gauza daude: heriotza, bakardadea eta maitasuna»

Iñaki Irazu Poeta

la berrogei urte eman ditu olerkiak idazten, batzuk Jabier Muguruzak erabili ditu, eta orain lehenengo liburua plazaratu du

FEELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. Iñaki Irazu Garmendiak (Asteasu, 1954) bere lehenbiziko liburua atera berri du: 'Errukiaren saria' olerki-bilduma (Erein arg.). Orain plazaratu du, baina badira ia berrogei urte poemak egiteari ekin ziola. Horietako asko Jabier Muguruzak musikatu ditu. Bizimodua euskaltegian euskara ikasten atera izan du.

– **Sinesten duzu poesian...**

– Nacho Vegari elkarrizketa egin zioten eta gogoan dukt esandako gauza bat: «Un poema te puede llevar muy lejos».

– **Liburua aurkeztean, orain aste gutxi, esan zenuen kronika tanke-ra daukela zure poesiak. Liburua-zen izenburuan ere hori diozu: 'Errukiaren saria. Eta beste kronika batzuk'.**

– Ez dut kontzienteki kronista izan nahi. Liburuan hiru liburu diferente daude, kritikari batek esan duen bezala. Lehenengo bietan tonu narritiboa erabili dut, zerbait kontatu nahi izan dut. Azken partea, hirugarrena, pertsonalagoa dela esan didate lagunek, eta bat nator.

– **Lehen partean giro politiko bat sumatzen da. Polizia etxeak ageri dira, tortura...**


– Ez nituzke hitz horiek erabiliko. Begira, bizitzan hiru gauza daude bizi ditugunak eta bizi gaituztenak: heriotza, bakardadea eta maitasuna. Jari nahi duzun ordenean. Egunero aldatzen da eragile bakoitzarekin daukagun harremana.

– **Olerki batean, hemendik Frantziara pasa nahian itotzen den portugaldar bati buruz ari zara.**

– Poema horrekin feed-back batzuk izan ditut. Ez dakigu gizona ito den engainatuta, edo izan den errore bat. Indarra, poema horretan, 'maleta' hitzak hartzen du.

– **Liburuko lehen poeman mendia aipatzen da. Gero apenas dagoen mendirik eta zelairik. Lehenengo poema horretan antzara eta musker-rra aipatzen dituzu, eta niri Obaba etorri zait gogora.**

– Hala da. Paisaia diferente bat agertzen da poema horretan. Zergatik? Anaia zaharraren [Bernardo Atxaga] hitzak dira, eta poema idaztean anaia-zen liburuaren, Obabaren eragina izango nuen. Hala ere, antzara eta musker-rra, nik ikusitako, nik bizitako gauzak ere badira. Aspaldiko poema da, izango ditu 25 urte, eta Jabier Muguruzaren lehen diskoan agertzen da. 'Obabakoak'-en badago esaldi hau: 'Egunero aterako nintzateke paseatzera'. Sonoritate handiko esaldia da. Nik, hori entzutean, trenak pasatzen eta tantak erortzen sentitzen ditut. Inoiz ikusi ditut egunkarian



Iñaki Irazu, aste honetan Donostiako Miramar parkean. :: LOBO

«Oso gustukoak ditut Ingalaterrako poeta batzuk, bereziki Thomas Hardy»

kronika batzuk literatura direnak, eta fabularen balioa hartzen dutenak. Adidibez, gogoan daukat Kar-rantzan urte batean lehorrea egin zuela eta erroiak goseak zeudela eta joaten zirela saldoka abereen gaine-rra; eta hango marruak! Zer dago kro-nika horretan? Hor badago zerbait gehiago, baina nor jartzen du 'gehi-ago' hori? Irakurleak. Zer da elemen-tu poetikoa? Gustatzen zait Gómez Pinek behin esan zuena: elementu poetikoa, izan daiteke zientzia, izan daiteke saiakera, izan daiteke Eins-teinen formula erlatibitatearena, azken batean poesia zera da, gordean

«Ez nuen metaforarik nahi. Nahi nuen zerbait indartsua. Metafora gauza kamutsa da»

dagoen harreman bat, ezagutza bat, azalaztea.
– **Poesiaz gogoeta asko egin duzu...**
– Zein da hogeigarren mendeko poetarik handiena? Nonbaitean irakurri nuen Kafka dela, haren obran irakurtzen dugulako hogeigarren mendearen muina. Eta horren froga omen da adjektiboa sortu zela: 'fakkiarra'. Nik kontatuko banizu nire gorraiz-za dela gestioak egitera joan Admin-sitraziora eta funtzionarioen erantzunak... hori bai dela fakkiarra. Joan nintzen entzun nuelako diru-laguntza ematen zutela audifonoa erosteko. Apuntatuta dauzkat funt-

«Nik egin banitu poema batzuk kriptikoak... horrek badu bere prestigioa»

zionarioen erantzun batzuk. Kafka bera abokatua zen eta bulego batean egiten zuen lan, baina ez edozein bulegotan: aseguru etxe batean. Hogeigarren mendearen bihotzean bizi zela esan liteke. Beste gauza bat: poe-sian hitzak berak agindu behar du. Mallarmék esaten zuen bezala, asko-tan ez du agintzen sentimenduak, eta ideia batek are gutxiago. Poesia hitzekin egiten da, eta nire liburu honetan hori ikusi dut garbi. Zerga-tik ipini dugu izenburutzat 'Erruki-aren saria'? Azken momentuan era-baki genuen, orain izan balitz, ate-joka eta berandu iritsi den beste poe-

ma baten izena ipiniko nioke liburu-ri: 'Zakur zaunka'.

– **Zure liburuan ez dago metafora-rik, bigarren esanahia duen hitzik.**
– Ez nuen metaforarik nahi. Nahi nuen zerbait indartsua, honestoa, nolabait esateko. Momenturen ba-tean erabili ditut metaforak, 'Herri-ko gazte baten kontuak' olerkian, baina zergatik? Bestela ezin nuelako. Metafora gauza kamutsa bihurtzen da. Bere lekua eduki dezake, eta oso ondo gelditzen da, adibidez, sen-timendu bat agertzeko: nere bihot-zeko azukre koskorra. Hor zaila da, hala ere, zerbait berria esatea. Bes-talde, metafora gauza abstraktua da eta ez du minik egiten. Diktadura garaian metafora bidez hitz egiten zuten: 'Longa noite de pedra', 'Tiem-po de silencio'... Bladi Oterok idatzi zuen harako hura – 'España, camisa blanca de mi esperanza' – diktadura garaian idatzi zuen, eta jakina, hori edonork kanta dezake.

– **Esan gauza gehiago poesiaz.**

– Poesia batek itzal bat eragin behar du, bere baitan dardar bat bildu behar du.

– **Olerki sorta honekin argialetxe baten ezetza jaso omen zenuen.**

– Argialetxe batzuetan aurkeztu nuen eta erantzunak interesgarriak izan ziren. Batean, eskertu zizkidaten sortako bi edo hiru poema, eta erantzun interesgarria zen, zeren editore edo kritikari horrek goratzen zituen ale horiek, egiazki, besteak ez bezalakoak ziren. Aldiz, ez zitzaizkion gustatu kronika itxura-ko poemak, sinpleegiak ote ziren esan zidan. Baina nik ez nuen fedea galdu eta defentsak aktibatu nituen. Aurkezpenetan aipatu izan dut Pe-dro Mari Otaño, aipatu izan dut 'kro-nika' hitza... Bitxia da batzuek zer espero duten poesiatik: zerbait liru-ragarria... baina paradoxikoki gero mespretxatu egiten da genero hau.

– **Sinpleak?**

– Bai, hitz hori. Eta 'simple' irakurri-ta, Antonio Zavala etorri zitzaidan gogora. 'Erlea' aldizkarian Pello Es-nalen artikulu bat irakurri nuen, 'Ne-ronek tirako nizkin' liburuaren bar-ne-historiaz, oso interesgarria, eta hor agertzen da nola esaten zioten Aita Zavalari liburu horren idazkera sinplea zela, eta hark zer erantzuten zuen: «Ebanjelioko idazkera ere sinplea da, eta zer?». Nik egin bani-tu poema batzuk, abstraktuagoak, kriptikoak... horrek badu bere pres-tigioa. Egin banitu poema batzuk me-taforen distira dutenak, edo «ederra-ren joko horretan» sartuta, orduan beharbada prestigio gahiago izango nuke. Kafkarengana itzuliz: nik ira-kurri dut, berriz ere, 'Metamorfosia', eta guztiz errealista eta laua da.

– **Esan zure gustuko poeta batzuk.**

– Oso gustukoak ditut Ingalaterra-ko batzuk. Han badago poesia egi-teko modu bat, Pedro Mari Otaño-rekin lotu daitekeena, kronika kut-sukoa. Bereziki gustatzen zait Tho-mas Hardy, XX. mende hasieran oso poema ederrak publikatu zituenak, aurretik eleberririk batzuk publikatuak zituelarik. Esaten dute lehen poeta modernoa dela Ingalaterran. Gizon honen tonua gustukoa dut, tonu laua, apal baina intentsoa. Gil de Biedma eta Kavafisengan ere ikusi dudana tonu hori, alegia.